# PROGRAMAZIOA

## Zinema

| | |
|---|---|
| Urtarrilak 27 enero | **Historia de una gaviota**<br>Denentzat / Recomendada para todos los públicos. |
| Otsailak 3 febrero | **Karramarro uhartea** (euskaraz)<br>Denentzat / Recomendada para todos los públicos. |
| Otsailak 10 febrero | **Baloia** (euskaraz)<br>7 urtetik gorakoentzat / Recomendada a mayores de 7 años. |
| Martxoak 17 marzo | **Banpiro txikia** (euskaraz)<br>7 urtetik gorakoentzat / Recomendada a mayores de 7 años. |
| Martxoak 24 marzo | **La princesa Mononoke**<br>7 urtetik gorakoentzat / Recomendada a mayores de 7 años. |

Emanaldi guztiak 17:00etan hasiko dira. / Todas las sesiones comenzarán a las 17:00 horas.
Proiekzioak Lugaritz Kultur Etxean izango dira. / Las proyecciones se realizarán en el Centro Cultural Lugaritz.
Sarrera / Entrada: 250 pta.

## Antzerkia

| | |
|---|---|
| Urtarrilak 3 enero | Txotxongillo Taldea, "Galtzagorriak"<br>Okendo Kultur Etxea (12:00) |
| Urtarrilak 3 enero | Tutik Ere Klowns, "Pan pan hasteko, pan bukatzeko"<br>Altzako Auzo Etxea / Centro Cívico de Altza (18:00) |
| Urtarrilak 13 enero | Paraiso Antzerkia, "Kox-kox"<br>Lugaritz Kultur Etxea (18:00) |
| Urtarrilak 13 enero | Behi Bi's, "Bertsotas"<br>Intxaurrondo Berri Kultur Etxea<br>Centro Cultural Intxaurrondo Berri (18:00) |
| Urtarrilak 21 enero | Dar-dar, "Alizia bitxikerien lurraldean"<br>Antzoki Zaharra / Teatro Principal (17:00) |
| Urtarrilak 26 enero | Los titiriteros de Binéfar, "Matamos al dragón"<br>Altzako Auzo Etxea / Centro Cívico de Altza (18:00) |
| Urtarrilak 27 enero | Dantza: Nats Nus, "Set"<br>Egia Kultur Etxea (18:00) |
| Otsailak 4 febrero | Inchicos, "Robin Hood"<br>Antzoki Zaharra / Teatro Principal (17:00) |
| Otsailak 10 febrero | Taupada, "Printze Txikia"<br>Egia Kultur Etxea (18:00) |
| Otsailak 16 febrero | Sebastopoleko Titiriteroak, "Mamutxoren arazoa"<br>Altzako Auzo Etxea / Centro Cívico de Altza (18:00) |
| Otsailak 17 febrero | Iguana Teatre, "El viaje de Andreu"<br>Lugaritz Kultur Etxea |
| Martxoak 3 marzo | Goloka, "Sorginak"<br>Lugaritz Kultur Etxea |
| Martxoak 4 marzo | Txotxongillo Taldea, "Erreka Mari"<br>Antzoki Zaharra / Teatro Principal (17:00) |
| Martxoak 10 marzo | Gorakada, "Aitonaren kontuak"<br>Lugaritz Kultur Etxea (18:00) |
| Martxoak 11 marzo | Txotxongillo Taldea, "Printze Txikia"<br>Antzoki Zaharra / Teatro Principal (17:00) |
| Martxoak 30 marzo | Markeliñe, "Mambru"<br>Altzako Auzo Etxea / Centro Cívico de Altza (18:00) |

art&maña




DONOSTIA KULTURA

# HAURRAK ZINERA ETA ANTZERKIRA

urtarrila martxoa / enero-marzo

2001

Urtarrilak 27 enero
Lugaritz Kultur Etxea /
Centro Cultural Lugaritz




# Historia de una gaviota

## (*La Gabbianella e il gatto*, 1998)

Italia. Zuzendaria / Director: Enzo D'Alò
Iraupena / Duración: 75 min.
Dibujos animados/Marrazki bizidunak

Luis Sepúlvedaren ipuin ederra pantailaratu du *La flecha azul* animazio film ospetsuaren egileak. Begiruneari eta elkartasunari buruzko fabula ekologista honek Zorbaren historia kontatzen du. Katu bat da Zorba, eta kaio bat aurkitzen du petrolio orbanak pozoituta. Hil aurretik, kaioak bere arrautza eman eta zera agintarazten dio: jaio berria zaindu eta hegan egiten irakatsiko diola.

*Se trata del hermoso cuento de Luis Sepúlveda llevado a la pantalla por el director de la famosa película de animación La flecha azul. Esta fábula ecologista sobre el respeto y la solidaridad narra la historia de Zorba, un gato que encuetra a una gaviota envenenada por una mancha de petróleo. Justo antes de morir, la gaviota le confía su huevo y le hace prometer que cuidará al recién nacido y le enseñará a volar.*



Otsailak 3 febrero
Lugaritz Kultur Etxea /
Centro Cultural Lugaritz



# Karramarro uhartea

## (*La isla del cangrejo*, 2000)

España. Zuzendariak / Directores: Joxean Muñoz,
Txabi Basterretxea. Iraupena / Duración: 75 min.
Dibujos animados/Marrazki bizidunak

Irusoin ekoizpen-etxe gipuzkoarrak sortutako historia. Bihotz oneko pirata batzuen ibilerak kontatzen ditu. Oso dira martxosoak, eta marrazo-irabiakia eta piraina-likorea edaten dute. Kain izeneko itsasontzian, Macaos-en altxorraren bila dabiltza, eta esklabo-trafikatzaileen kontra borrokatzen dira, zertarako eta Karramarro uhartea piratentzat eta musikarentzat berreskuratzeko.

*Historia creada por la productora guipuzcoana Irusoin, que narra las aventuras de unos piratas de muy buen corazón, muy marchosos y que beben batido de tiburón y licor de piraña. A bordo de su barco Kaín buscan el tesoro de Macaos y luchan contra los traficantes de esclavos con el fin de recuperar la Isla del Cangrejo para los piratas y la música.*

**Otsailak 10 febrero**
**Lugaritz Kultur Etxea /**
**Centro Cultural Lugaritz**




# Baloia

## (*De Bal*, 1999)

**Belgica, Alemania, Holanda. Zuzendaria / Director: Danny Deprez. Aktoreak / Interpretes: Ernst Low, Michael Pas, Martje Ceulemans, Rijk De Gooijer. Iraupena / Duracion: 90 min.**

Sophiak, 11 urteko neskato batek, lagun bat besterik ez du, Magnus izeneko txakur deslaia, orube abandonatu batean bizi dena haren auzunean. Herriko alkateak etxeak egin nahi ditu leku horretan; txakurraren etxea desegingo du, hortaz. Sophiak ijito bat ezaguten du, eta hark larruzko pilota zaharra utziko dio bost egunerako. Haurrak pilotaren ahalmen magikoak erabiliko ditu bere lagunaren bizilekua desegin ez dezaten.

*Sophia, una niña de 11 años, sólo tiene un amigo, un perro extraviado llamado Magnus, que vive en su barrio en un terreno abandonado. El alcalde del pueblo tiene intención de edificar en ese lugar, destruyendo así el hogar del perro. Un día Sophia conoce a un gitano que le presta una vieja pelota de cuero por 5 días. La niña utilizará los poderes mágicos de la pelota para evitar la destrucción de los terrenos donde vive su fiel amigo.*



**Martxoak 17 marzo**
**Lugaritz Kultur Etxea /**
**Centro Cultural Lugaritz**



# Banpiro txikia

## (*The Little Vampire*, 2000)

**Alemania. Zuzendaria / Director: Uli Edel. Aktoreak / Interpretes: Richard E. Grant, Allice Krige, Rollo Weeks, Jonathan Lipnicki, Jim Carter. Iraupena / Duracion: 95 min.**

Antonek bere gurasoekin etorri da Estatu Batuetako hiri handi batetik Eskoziako bazter bateko herri txiki batera. Bere bizileku berrian, Antonek banpiroen ameskaiztoak izaten ditu gauero. Gau batez, bere gelan, banpiroen oinarrizko mugimenduak lantzen ari dela, ustekabeko bisita izango du: saguzar handi bat, bere begien aurrean haur banpiro bihurtuko dena.

*Antón acaba de mudarse con sus padres desde una gran ciudad de Estados Unidos a un pequeño pueblo en un lugar remoto de Escocia. En su nuevo hogar, Antón cada noche tiene pesadillas sobre vampiros. Una noche, en su habitación, mientras practica los movimientos básicos de los vampiros, recibe una visita inesperada: un gran murciélago que, ante sus ojos, se transforma en un niño vampiro.*

Martxoak 24 marzo
Lugaritz Kultur Etxea / Centro Cultural Lugaritz



# La princesa Mononoke

## (*Mononoke Hime*, 1998)

Japón. Zuzendaria / Director: Hayao Miyazaki
Iraupena / Duración: 137 min
Dibujos animados/Marrazki bizidunak

Zibilizazio inbaditzaile baten eta basoko jainkoen arteko guduaren berri ematen duen kontakizun animatua. Izadiko indarren artean den oreka desegiteko arriskua dago. Mononoke printzesak, otso izugarrien mirabe baita, Lady Eboshiri egingo dio aurre, arma-fabrikatzaile anker bati. Fantasiaz betetako abentura, basurde sorginduak, jainkozko oreinak eta basoko espiritu misteriotsuak protagonista dituena.

*Relato animado de un conflicto bélico entre una civilización invasora y los dioses del bosque que amenaza con destruir el equilibrio que reina en las fuerzas de la naturaleza. La princesa Mononoke, criada de gigantescos lobos, se enfrenta a Lady Eboshi, implacable fabricante de armas. Una aventura fantástica, una fábula protagonizada por jabalíes poseídos, ciervos divinos y enigmáticos espíritus del bosque.*



# Galtzagorriak



Urtarrilak 3 enero
OKENDO KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL OKENDO
12:00

## Txotxongillo Taldea

Jakitxo hauek itsu-itsuan betetzen dituzte beren nagusien aginduak. Eurak dira Txotxongillo Taldeak eszenaratzen duen herri ipuin honetako protagonistak. Mahaiko txotxongiloak eta argi beltza erabiliz, eta ondo kontaturiko ipuin batek duen indarra azpimarratuz, ikusleak barrez jartzea lortzen dute, Peruk, lanik egin nahi ez duela-eta, bereganatzen dituen arazoekin. Historia baserri giroan gertatzen da, eta elementu asko ditu Euskal Herriko folkloretik atereak.

*Estos personajillos, que cumplen de forma atolondrada lo que dicen sus amos, son los protagonistas de este cuento tradicional que Txotxongillo Taldea pone en escena. Utilizando marionetas de mesa y luz negra y poniendo el acento en la fuerza que tiene un cuento bien narrado, hacen que los espectadores rían con Peru y con los problemas en que se mete por no querer trabajar. La historia se desarrolla en un ambiente rural y cuenta con numerosos elementos inspirados en el folklore del País Vasco.*

## Antzerkia

Urtarrilak 3 enero
CASARES KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL CASARES
18:00



# Pan pan hasteko, pan bukatzeko

## Tutik ere Clowns

Zirkoko pailazoen kontzeptu klasikoa gaurkotzea da talde honen helburua, jatorrizko ezaugarriak aldatu gabe. Oraingo istorio honetan, Pepino Lontxo tronpetajole italiar famatua dator kontzertu bat ematera. Baina, azken momentuan, Pepino handia ez da agertzen. Kontzertua bertan behera uztea ezinezkoa denez, Tutik ere Clowns arduratuko da Pepinoren hutsunea betetzen. Musika saio lasaia izango balitz bezala hasten da, baina auskalo nola bukatuko den...

*El objetivo de este grupo es actualizar el concepto clásico del payaso circense, sin cambiar por ello sus características tradicionales. En la historia que nos presentan en esta ocasión, el famoso trompetista italiano Pepino Lontxo va a venir a dar un concierto. Pero llega el día y el músico no aparece. Como no es posible suspender el concierto, Tutik ere Clowns se encarga de sustituir a Pepino. A saber cómo terminará lo que en un principio parece ser una actuación tranquila...*

Urtarrilak 13 enero
LUGARITZ KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL LUGARITZ
18:00

# Kox-kox

## Paraiso Antzerkia

## Antzerkia



Teatro Paraisok Belgikako Théâtre de la Guimbarde konpainiarekin elkarlanean produzituriko ikuskizun hau "Ikusle Txikiak" Europako 2000 Proiektuaren barnean kokatzen da. Pertsonaia nagusia oroimena da, bere haurtzaroaz, bere jaiotzaz eta bera jaio baino lehenagoko gertaerez ere gogoratzen den haurtxoan pertsonifikatua. Haurtxo horrek biziari buruzko istorio sinple eta zoragarria gogoratzen du, eta antzokian dauden umeei kontatzen die. Ez gara aza batetik sortuak, ezta arrosa batetik ere, behin elkar maitatu zuten aita eta ama batzuen maitasunetik baizik. "Kox-kox" antzezlanak freskotasuna, zehaztasuna eta poesiaz betetako umorea eskaintzen ditu.

*Este espectáculo coproducido por Teatro Paraiso y el Théâtre de la Guimbarde de Bélgica se encuadra en el Proyecto Europa 2000. El personaje principal es la memoria, personificada en un niño que recuerda incluso lo acontecido antes de su nacimiento. El bebé rememora una historia simple y maravillosa sobre la vida, y se la cuenta a los niños espectadores. No hemos nacido de una berza, ni de una rosa, sino del amor de un padre y una madre. La obra "Kox-kox" ofrece frescura, concreción y un humor lleno de poesía.*

# Bertsotas

## Behi Bi´s

Urtarrilak 13 enero
INTXAURRONDO BERRI KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL INTXAURRONDO BERRI
18:00

"Bertsotas" izenpean, Roald Dahl-ek bertsotan idatzitako hiru ipuin bildu dira: "Mari Errauskin", "Dortoka jauna eta Erbia" eta "Ion eta Bababeltz magikoa". Hirurak ere oso ezagunak, baina Roald Dahl-en eskutik guztiz berri agertzen zaizkigu: Mari Errauskin sekulakoak asmatzen Printzea harrapatzeko, hau basapizti hutsa izanik; Dortokak laguntza eskatu Arratoi jaun negozio gizon zuhurrari, eta honek informazioa saldu Erbiari; hirugarren ipuina, berriz, rap erritmoan abesten da. Hiru ipuinak kontatzen dira musikaz, panpinez eta dantzaz lagundurik.

*Bajo el título de "Bertsotas" se han reunido tres cuentos de Roald Dahl: "Cenicienta", "La tortuga y la liebre" y "Juan y las habichuelas mágicas". Cuentos populares de los que Roald Dahl ofrece sendas versiones de gran originalidad. Así, Cenicienta no para de pedir cosas para cazar al Príncipe, que resulta ser una mala bestia; la Tortuga pide ayuda al Ratón, pero éste le vende la información a la Liebre; el tercer cuento se cuenta a ritmo de rap. Música, danza y muñecos son recursos que se utilizan en los tres cuentos.*

**Urtarrilak 21 enero**
**ANTZOKI ZAHARRA / TEATRO PRINCIPAL**
**17:00**



# Alizia bitxikerien lurraldean

## Dar-dar

Alizia untxi txiki baten atzetik doanean, honi eroritako haizemaile bat itzuli nahian, zulo batean barrena erorten da. Eroz betetako lurralde zoragarri batean galduko da hala. Bihotzen Erreginak lepoak moztea besterik ez du gogoan, eta untxiak bakarrik eraman diezaioke bere haizemaile misteriotsua. Lurralde horretan betiko atxiloturik geratuko al da Alizia? Erotu egingo al da? Burua moztuko al diote? Lewis Carroll-en obra klasikoa Mozart-en zenbait piezarekin konbinaturik ematen digute Dar-dar-ekoek, helburu pedagogikoak dituen muntaketa honetan.

*Cuando Alicia persigue a un conejo blanco para devolverle el abanico que aquel ha perdido, cae por una madriguera. De esa manera, se extravía en un país maravilloso habitado por extravagantes personajes. La Reina de Corazones no piensa más que en cortar cabezas, y solamente el conejo puede llevarle su abanico misterioso. ¿Quedará Alicia presa para siempre en ese país? ¿Se volverá loca? ¿Le cortarán la cabeza? El grupo Dar-dar ofrece una versión del clásico de Lewis Carroll combinándolo con piezas de Mozart, en un montaje realizado con fines pedagógicos.*



# Matamos al dragón



**Urtarrilak 26 enero**
**ALTZAKO AUZO ETXEA / CENTRO CIVICO DE ALZA**
**18:00**

## Los titiriteros de Binéfar

Aurten bete dira 25 urte Los Titiriteros de Binéfar taldea antzerkia egiten hasi zenetik. Urteotan, mundu osoan zehar ibili dira, New York-eko Guggenheimen bezala Sao Pauloko faveletan, Cannesko zine jaialdian zein Lleida, Zaragoza edo Huescako kartzela eta psikiatrikoetan. Oraingo ikuskizun honetan, Dragoncio herensugea da protagonista. Hura eta haren lagunak ezagutzeko aukera izango dute ikusleek: Abundio agintzailea, Jorge zalduna, Francesa printzesa, Jordi, Quiquiriqui oilarra, Soplagaitas, Manosligeras, Viena behorra...

*Este año se han cumplido 25 años desde que los Titiriteros de Binéfar empezaran a hacer teatro por todo el mundo. Durante ese tiempo, han llevado sus espectáculos a muchos países, desde el Guggenheim de Nueva York hasta las favelas de Sao Paulo, desde el Festival de Cannes a las cárceles y psiquiátricos de Lleida, Zaragoza y Huesca. En este espectáculo, el protagonista es el dragón Dragoncio, al que los espectadores podrán conocer junto con los demás personajes: Abundio el mandón, el Caballero Jorge, la Princesa Francesa, Jordi, el gallo Quiquiriquí, Soplagaitas, Manosligeras, la yegua Viena...*

**Otsailak 4 febrero**
**ANTZOKI ZAHARRA / TEATRO PRINCIPAL**
**17:00**



# Robin Hood
## Producciones Artísticas Inchicos S.L.

Bere aurreko produkzioekin egin bezala ("Blancanieves", "Cenicienta", "El Arca de Noé", "Pinocho", "Alicia en el País de las Maravillas"...), INCHICOSek haur eta gazte literaturako historia klasiko bati ekiten dio oraingoan ere. Aipatu obretan bezala, jantzi ederrak eta INCHICOSen panpina ezagunak eszenaratuko dira. Panpinok aktore gazteek osatutako talde baten asmamenari eta profesionaltasunari esker pizten dira, eskarmentu handia baitute haurrekiko eguneroko lanean. Musika ere, alaia eta antzezten den historiari egokitua, osagai aipagarria da.

*Al igual que lo hiciera con sus anteriores producciones ("Blancanieves", "La Cenicienta", "El Arca de Noé", "Pinocho", "Alicia en el País de las Maravillas"...), INCHICOS aborda una vez más una historia clásica en la literatura infantil y juvenil, "Robin Hood", que, como en las citadas, cuenta con un brillante vestuario y la puesta en escena de los famosos muñecos de INCHICOS, que cobran vida gracias al ingenio y profesionalidad de un grupo de jóvenes actores con gran experiencia en el trabajo diario con el público infantil. La música, alegre y actual, adaptada a la historia que se representa, es también un elemento destacado.*



# Printze txikia
## Taupada



**Otsailak 10 febrero**
**EGIA KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL EGIA**
**18:00**

2000. urtean bete da Saint Exupéry-ren jaiotzaren mendeurrena. Saint Exupéryk liburu handia idatzi zuen, haur literaturako klasiko bat. "Printze txikia" ere bidaia iniziatiko baten historia da: haur batek mundua eta bizitza deskubritzen ditu zazpi pertsonaiaren bidez. Pertsonaia horiei esker, giza izaera ezagutu eta salatuko du. Sinbolismoz betetako pertsonaiak eta gaiak dira, erregistro poetikoan kontatuak, eta helduen munduaren norberekeria, errutina edo solidaritate falta adierazten dute.

*En el año 2000 se ha cumplido el centenario del nacimiento de Saint-Exupéry, autor de un gran libro, un clásico de la literatura infantil como es "El Principito". También ésta es la historia de un viaje iniciático: un niño descubre la vida y el mundo a través de varios personajes, gracias a los cuales conoce y denuncia la condición humana. Se trata de personajes y temas llenos de simbolismo, contados en un registro poético, que expresan el egoísmo, la rutina o la falta de solidaridad del mundo de los adultos.*

**Otsailak 16 febrero**
**ALTZAKO AUZO ETXEA / CENTRO CÍVICO DE ALTZA**
**18:00**



# Mamutxoren arazoa

## Sebastopoleko titiriteroak

Mamutxok arazo bat du. Ez du inor beldurtzen, eta gainera, saiatzen denean, barre egiten diote. Pipa iratxoa Mamutxoren lagun egingo da. Geldo barraskiloarekin mundua zeharkatuko du, arazoari konponbidea aurkitzeko asmoz. Ikuskizun honek Titiriteroen txotxongilo-antzerkiaren ezaugarriak ditu: akrobazia, malabarrak, magia eta musika. Kalean edo antzokian egin daitekeen antzezlana da.

*Mamutxo tiene un problema: no mete miedo a nadie, y además cuando lo intenta todos se le ríen. Traba amistad con el duende Pipa. Después atraviesa el mundo del caracol Geldo, tratando de buscar una solución a su problema. Este espectáculo tiene las características de otros espectáculos de los Titiriteros: acrobacias, juegos malabares, magia y música. Se trata de una obra que puede ser representada tanto en la calle como en un recinto teatral.*



# El viaje de Andreu

## Iguana Teatre

**Otsailak 17 febrero**
**LUGARITZ KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL LUGARITZ**
**18:00**



Andreu Santandreu mutiko azkar eta atsegina da, baina itsusi sentitzen da eta horrek nahigabetzen du. Egun batez, aitonaren liburutegian, zera aurkitzen du, urrin magiko batek guapo bihurtzen duela erabiltzailea, baina, zoritxarrez, Ipar poloan bizi den alkimista batek dauka. Marianna lagunarekin batera, munduari bira emateari ekingo dio, eta abentura harrigarriak biziko dituzte...

*Andreu Santandreu es un chico espabilado y simpático que se siente feo, lo cual le hace sentirse desgraciado. Un día, en la vieja biblioteca de su abuelo, descubre que existe un perfume mágico que convierte en guapo a quien lo usa, pero desgraciadamente lo tiene un viejo alquimista que vive en el polo Norte. Acompañado de su amiga Marianna, emprende un viaje alrededor del mundo, en el que vivirá aventuras extraordinarias...*

# Sorginak

## Goloka

**Martxoak 3 marzo**
**LUGARITZ KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL LUGARITZ**



**Martxoak 4 marzo**
**ANTZOKI ZAHARRA / TEATRO PRINCIPAL**
**17:00**



# Erreka Mari

## Txotxongillo Taldea

b a[illegible]e liteke Euskal Herrian oraindik lamiak bizi izatea? Nekez. Hainbeste zikinkeria, inbidia eta marmarrekin, ezkutatuz joan dira lamiak. Baina ez larritu, bat behintzat gelditzen zaigu-eta. Beraren istorioa asmatu, idatzi eta kontatzen digu Txotxongillo Taldeak. Hauxe da beren errepertorioan gehien antzezten duten ipuina; ikusleek gehien maite dutena.

*Leyenda basada en un personaje de la mitología vasca: las lamias, genios del río. Con humor, con ternura, Txotxongillo Taldea nos cuenta las dificultades por las que tienen que pasar Erreka Mari y Martín debido a la intransigencia de las gentes del pueblo, que quieren acabar con ella por la única razón de ser diferente. Esta es la historia más representada del repertorio del grupo, y nos habla del amor, del cuidado de nuestro entorno, del respeto a los demás.*

**Martxoak 10 marzo**
**LUGARITZ KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL LUGARITZ**
**18:00**



# Aitonaren kontuak



## Gorakada

3-7 urte bitarteko haurrentzako edo familientzako ikuskizuna, ipuinen munduaren gainean egina. Historia amets batean hasten da, eta haur batek bere bizitzako fantasia asetzeko egiten dituen ibilerak kontatzen ditu, jolasak eta desirak tartekatuz, pertsonaia atseginez betetako mundura iristeraino. Han bidaia egin beharko du dortokaren uhartera, altxor harrigarri baten bila ("hitz magikoen kutxa"), Coruja sorginari bere hitz magikoa aurkitzen laguntzeko.

*Espectáculo de marionetas dirigido a niños y niñas de 3 a 7 años o público familiar, realizado sobre el mundo de los cuentos. La historia comienza en un sueño y narra las peripecias de un niño que intenta satisfacer la fantasía de su vida y conjuga deseos y juegos transportándose a un mundo lleno de personajes divertidos, donde tendrá que hacer un viaje hasta la Isla de la Tortuga en busca de un sorprendente tesoro, "el cofre de las palabras mágicas", para ayudar a la Bruja Coruja a encontrar su palabra mágica.*

## Antzerkia

Martxoak 11 marzo
**ANTZOKI ZAHARRA / TEATRO PRINCIPAL**
**17:00**

# Printze txikia
## Txotxongillo Taldea



Zergatik Saint-Exuperyk hilezkinola asmatutako Printze Txikiaren historia ez da inoiz zaharkiturik geratzen? Benetan garrantzia duenaz hitz egiten duelako: izarrez, loretxo batez eta adiskidetasunaz. Txotxongillo Taldea txikienei ulertarazten saiatu da.

*¿Por qué la historia del Principito, narrada en la inmortal obra de Saint-Exupery, no se pasa de moda? Porque habla de lo que de verdad importa: de las estrellas, de una pequeña flor y de la amistad. El grupo Txotxongillo se ha esforzado en hacérsela entender a los más pequeños.*



Martxoak 30 marzo
**CASARES KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL CASARES**
**18:00**

# Mambru
## Markeliñe taldea

Mambru gerrara joan da. Frontean ez dago inor, eta apur bat lasaitzen da. Baina halako batean bera bezalako bat agertzen da, bera bezalakoa baina desberdina. Bi soldadu etsai aurrez aurre. Beste jantzi batzuk, beste keinu batzuk, baina beldur, ausardia eta aurreiritzi berberak. Bien arteko sesioek eta sestrek aurrera egin ahala, bien arteko harremanak adiskidantza bihurtuz joango dira. "Zergatik gara etsai, elkarrekin gustura bagaude?", galdera horixe sortzen zaie, ozenki esan gabe ere.

*Mambrú se va a la guerra. En el frente no hay nadie, por lo que se tranquiliza un poco. De pronto, aparece otra como ella, pero distinta. Dos soldados enemigos frente a frente. Otra indumentaria, otros ademanes, pero con el mismo miedo, valentía y prejuicio mutuo. Según transcurren sus disputas y batallas, sus encuentros y desencuentros van transformándose en una historia de amistad: «¿Por qué somos enemigos si parece que nos gusta estar juntas?", se preguntan sin decirlo.*

## Dantza

Urtarrilak 27 enero
**EGIA KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL EGIA**
**18:00**

# Set
## Nats Nus



Arteetan zehar egindako bidaia da haurrei zuzendutako ikuskizun hau, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz eskaintzen dena. Gizateriaren historian zehar eboluzionatuz joan diren zazpi arteetan zehar. Historia hori ezagutzen eta ulertzen lagundu diguten arteetan. Itxura eta kolore desberdinetako elementuak konbinatzen dira koadrorik hoberena sortzeko. Dantzarien gorputzak buztin bihurtzen dira aldarte-egoera desberdinak moldeatzeko. Hainbat bolumenek bizilekutarako balio duten espazioak eratzen dituzte modu harrigarriz. Elementu bitxiek laguntzen diete aktoreei ipuin bateko pertsonaiak biziarazten. Neurri guztietako liburuek barrea, negarra, beldurra, hasperenak eta ametsak eragingo dizkigute.

*Este espectáculo dirigido al público infantil, programado en colaboración con la Diputación de Gipuzkoa, es un viaje a través de las artes. Las siete artes que han ido evolucionando con la humanidad a lo largo de su historia. Las mismas que nos han ayudado a conocer y comprender en gran parte esta historia. Elementos de diferentes colores y formas se combinan para crear el mejor cuadro. Los cuerpos de los bailarines se convierten en barro para moldear distintos estados de ánimo. Diferentes volúmenes forman ingeniosos espacios habitables. Estrambóticos accesorios ayudan a los actores a dar vida a los personajes de un cuento. Libros de todas las medidas nos harán reír, llorar, tener miedo, suspirar y soñar.*

Emanaldiak prezio berezia izango du.
La actuación tendrá un precio especial.